

BANAKAKO ERREKLAMAZIOEN INGURUKO ZALANTZAK

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Gizarte Ekimeneko Ikastetxe eta Ikastoletako langileen alde emandako sententziak sortutako zalapartaren ondorioz, STEE-EILASeko zerbitzu juridikoek bideratutako erreklamazioen inguruko hainbat argibide ematea beharrezkoa ikusi dugu.

Sindikatuaren eskutik aurkezten den erreklamazioaren xedea enpresak behin betiko sententzia bete araztea da (Auzitegi Nagusiak emango du, 8-10 hilabeteko epea baino lehen ez du emango) **hau ere aldekoa balitz**. Beraz, enpresak sententzia betetzeari uko eginez gero, eta betiere, **interesatuaren aldez aurreko baimenarekin** eta STEE-EILASen erabakiaren ondorioz soilik aktibatuko litzateke erreklamazioa epaitegian.

Baimen hori badugu. Hala eta guztiz ere, unea iristen denean **aurrera ez egiteko erabakia har daiteke** eta kasu honetan bazaude, sindikatuari jakinarazi behar diozu. Prozedura hasi dutenei eta eteteko erabakia hartu eta afiliatu ez direnei, **ez zaie dirurik itzuliko**. Afiliatu direnentzako ez du inolako gasturik suposatzen. **STEE-EILASek aldez aurretik jakinaren gain jarriko zaituzte**, epaitegian erreklamazioak berraktibatu aurretik.

Dakizunez, **erreklamazioa enpresaren aurka aurkezten da**, epaiak onartu duen moduan. STEE-EILASeko abokatua erreklamazioa aurkeztu duen pertsonaren ordezkaria da prozesuak dirauen bitartean eta ez du bertan agertu beharrik. Lehenengo zatia **adiskidetze egintzarena** da, zeinetan, orokorrean, bi alderdiak beren postuetan berresten diren. Jarraian, epaitegian aurkezten da erreklamazioa, epaiketa burutzeko dataren zain. Gatazka kolektiboko epai bat bideratzen ari denez, bai enpresak, bai sindikatuek eta baita epaileak berak ere, **behin betiko sententzia eman bitartean demanda gelditzea** erabakitzen dute. *Kristau Eskolak* bere ikastetxeei agindu die demanda gelditzeko eskaera gauza dezaten eta gure abokatuak onartzen du. Eskolak eskatzen ez badu gure abokatuak burutzen du eskaera. **Erreklamazioak ez dira epaiketara iristen behin betiko sententzia eman bitartean eta betiere, erreklamazioa aurkeztu duen pertsonak hala nahi izanez gero jarraitzen da aurrera.**

Erreklamazioa, epaiketara iritsi aurretik eguneratuko den diru kopuru baten inguruan aurkeztu zen. Eguneratzeko, nominak jasotzea beharrezkoa da. Era berean, gatazka kolektiboaren behin betiko sententziak hala erabakiko balu, **administrazioari erantzukizun subsidiarioa** sar liteke.

Zalantza guztiak argitu izana espero dugu. Beste kezkaren bat izango bazenu, jar zaitez gurekin harremanetan inolako zalantzarik gabe.

STEE-EILAS

2011-03-31

DUDAS EN TORNO A LAS RECLAMACIONES INDIVIDUALES

Dado el revuelo causado por la sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco favorable a las y los trabajadores de los centros de Iniciativa Social y las ikastolas, nos ha parecido necesario explicar algunas cuestiones básicas en torno a las reclamaciones de cantidades tramitadas por los servicios jurídicos de STEE-EILAS.

La reclamación individual que se presenta con el sindicato tiene como objeto obligar a la empresa a hacer cumplir la sentencia definitiva (la que dicte el Tribunal Supremo en el plazo no inferior a 8 o 10 meses) **en caso de que ésta sea también favorable**. Por lo tanto, sólo se activará en el juzgado en caso de que la empresa se niegue a hacer efectiva la sentencia y siempre por decisión de STEE-EILAS **con el consentimiento previo de la persona interesada**.

Dicho consentimiento ya lo tenemos. Aún así, llegado el momento **se podrá decidir no tramitarla**, aunque deberá notificarse esa decisión al sindicato. En este caso **no se devolverá el dinero** a las personas no afiliadas que iniciaron el procedimiento. Para las personas afiliadas no tiene ningún coste. **STEE-EILAS avisará con la suficiente antelación**, antes de reactivar las reclamaciones en el juzgado.

Como ya sabes, **la reclamación se presenta contra la empresa**, en los términos que ha reconocido la sentencia. El abogado de STEE-EILAS representa a la persona reclamante en todo el proceso, con lo que no tiene que personarse en la causa, en ningún momento. La primera fase consiste en un **acto de conciliación**, en el que las dos partes -normalmente- se ratifican en sus posturas. Posteriormente, se presenta la reclamación en el juzgado, en espera de fecha para la celebración del juicio. Dado que se está tramitando una sentencia de conflicto colectivo, tanto la empresa como los sindicatos o incluso el propio juez determinan **la paralización de la demanda hasta que la sentencia sea definitiva**. *Kristau Eskola* ha dado orden a sus centros de solicitar la paralización, que es aceptada por nuestro abogado. Si el centro no lo solicita es nuestro abogado el que solicita la paralización hasta que la sentencia sea definitiva. **Ninguna reclamación va a llegar a juicio antes de la sentencia definitiva y siempre se hará si la persona que ha presentado la reclamación así lo desea**.

La reclamación se presentó por una cantidad determinada que se actualizará antes de llegar a juicio. Para eso, es preciso que vayas guardando las nóminas. Igualmente se podría incluir la **responsabilidad subsidiaria a la administración**, en caso de que la sentencia definitiva del conflicto colectivo así lo determinara.

Esperamos haber respondido a todas las cuestiones. Si te queda alguna, no dudes en ponerte en contacto con nosotr@s.

STEE-EILAS

31-03-2011